



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI

R É G I O N
AQUITAINE
LIMOUSIN
POITOU-CHARENTES



PRENTSA-OHARRA

GARAPENek martxan jarri du sormen mugikortasun proiektu bat Euroeskualdean

Irailaren 15ean proiektua martxan jartzeko bilera ospatu da Hendaian, Aquitania Euskadi Euroeskualdeko egoitzan, hain zuzen ere. Bilera honen helburua Euroeskualdearen aldetik deialdiaren nondik-norakoak ezagutu, eta baita proiektuko kide direnen artean zehaztasunak konpartitzea izan da.

Garapenek (Garapen Agentzien Euskal Elkarte) **5 Garapen Agentzien bidez (Buruntzaldea-Beterri, Debegesa, Getxolan, Inguralde eta Oarsoaldea), Bitamine Faktoriarekin** (Nazioko nahiz nazioarteko diziplinarteko artisten proiektuak garatzeko mugaz gaindiko espazioa da, eta bertan berrikuntza, sormena eta esperimentazioa baloratzen dira), **eta La Fábrica Polarekin** (Bordelen kokatuta dago. Bertan hainbat ekoizpen polo biltzen dira, baita artisten eta kulturaren difusiorako guneak nahiz bizitza guneak ere) **lankidetzan sormen mugikortasun proiektu bat martxan jarri dute.**

Eusko Jaurlaritzako Aquitaine-Euskadi 2016 proiektuen deialdiko bigarren saioan kokatzen da. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako mugikortasun programa honek gure kasuan 24 gazte (12 eskualde bakoitzeko) sortzaileen mugikortasuna ahalbidetuko du Euroeskualdean ekosistema sortzailea indartzeko asmoz.

Mugikortasun proiektu honen bidez, parte hartzaileek, eta proiektuko bazkideek **topaguneak konpartitu, hitz egin, sareak eraiki, ideiak konektatu, sinergiak bilatu, eta ideia berrietan kooperatu ahalgo dute.**

Kanpoko egonaldia behin amaituta (2/3 egun gazteen agenda kontuan hartuta) parte hartzaileek ezagutza berriekin, kontaktu berriekin... bueltatuko dira euren ingurunean ezagutzera emateko.

Proiektuko bazkide diren erakundeek parte-hartzaile bakoitzarentzat egutegi eta agenda pertsonalizatua antolatuko dute bisitekin. Horretarako, lankidetzan oinarritutako eta gizarte ikuspuntua duten sormen ekintzailletza guneak egongo dira. Bai Aquitanian, bai Euskal Herrian ere. Gune hauek lanerako dinamika interesgarriak sustatzen dituzte lurraldeko tokiko garapena ikuspegitik.



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI

R É G I O N
AQUITAINE
LIMOUSIN
POITOU-CHARENTES



Kultura eta Sormen Industriak (KSI)

Kultura eta Sormen Industriak (KSI) enplegu berriak sortzeko eta ekonomia sustatzeko sektorea da. Baita krisi garaian ere. Horretaz gain, lurraldearen identitatea indartzen laguntzen dute. Batez ere, tokiko eta eskualdeko eragileen artean estrategia bateratua existitzen baldin bada.

Aquitaine-Euskadi sormen mugikortasun proiektuarekin lortu nahi diren helburuak ondorengo hauek dira:

- Ezagutza, esperientziak edota proiektu interesgarriak konpartitu, eta gazteen gaitasunak hobetzea.
- Sentsibilizazioa mugaz bestaldeko lankidetzara aukeren eta ezagutzaren inguruan.
- Kapital sozialaren areagotzea, eta lan sareak sortzea.
- Negozio aukera berriak identifikatzea.
- Lurraldeko eragile dinamizatzaileen arteko sinergia berriak sustatzea, eta baita Kultura eta Sormen Industria (KSI) arloan erreferente diren eragileekin ere.

- **Sortzaileen mugikortasun programa deialdia:**

http://www.garapen.net/documentos/ficheros/documentacion_eu/Sortzaileen_Mugikortasunerako_Programa.pdf

GARAPEN

Garapen 1992an sortu zen. Garapen Agentzien Euskal Elkarte da, eta EAEko garapen agentziekin lan egiten dugu tokiko ekonomiaren garapen eta hazkundera lagunduz. Garapen agentziak erakunde publikoak dira. Udalek sortutako erakundeak lana sortzeko eta enpresen lehiakortasuna, eta biztanleen bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Lurraldean parte hartzen duten gainerako agenteekin batera. Horixe da xedea.

Garapen 31 garapen agentziek osatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoko 3 lurralde historikoetan zehar banatuta. Garapen osatzen duten agentziek 1.839.396 biztanle biltzen dituzten 176 udalerriri eskaintzen dizkiete euren zerbitzuak. Hau da, Euskadiko biztanleriaren %84ri, eta lan-esparruak ondorengoak dira: enplegua, ekintzailtza, enpresa, merkataritzaren sustapena, turismoaren sustapena, eta sektore sortu berri, edota estrategikoen sustapena.



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EUROREGION AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGIÓN AQUITANIA EUSKADI

R É G I O N
AQUITAINE
LIMOUSIN
POITOU-CHARENTES



Garapen 569 profesionalen osatutako giza-taldea da tokiko garapenaren zerbitzura. Elkarte profesionala da Garapen, eta Euskadiko tokian tokiko erakundeek eratutako garapen-agentziak batzea du xede. Garapen erakunde-sare moduan antolatuta dago erakundeko kideen arteko elkarrekiko konfiantzan eta elkarlanean oinarrituta, finantza maila orekatua izango duen gutxieneko egitura malgu batekin. Helburu nagusiak ondorengoak dira: Toki mailako eta izaera endogenoko garapen ekonomikoa kontzeptualizatzea; horren proiektio estrategikoa eta gauzapen eraginkorra lantzea, sarean lan egitea eta proiektuak garatzea elkarlanean agentzien artean, informazio eta ezagutza trukea sustatzea eta lankidetzaren eta elkarlan proiektuak burutzea, agentziei zerbitzuak eskaintzea interes komuneko programetarako sinergiak garatzeko, bere jardueraren arloko gaiei dagokienez, irizpide eta posizionamendu komunak eraikitzea bestelako erakunde publiko edota pribatuen aurrean.

BITAMINE FAKTORIA

Artideto Artisten Elkartearen proiektua da BITAMINE FAKTORIA. 2011ko martxoan sortutako sormen lantegia, kultura, diseinua eta gaur egungo artea ekoitzi eta hedatzeko. Nazioko nahiz nazioarteko diziplinarteko artisten proiektuak garatzeko mugaz gaindiko espazioa, hain zuzen ere. Berrikuntza, sormena eta esperimentazioa baloratzen dira bertan. Aberastasunaren eta enpleguaren sorrera sustatzen dute, etorkizun irudimentsuagoa, kohesionatuagoa, onbideratuagoa, ekologikoagoa eta joriagoa izateko bidea eskainiz.

FÁBRICA POLA

Fábrica Pola artisten sorkuntza garaikidera, ekoizpenera eta difusiora bideratutako gunea da. 19 egiturez osatuta dago ikus-entzunezko arloak esaterako, auzoko 9 artista, 5 laguneko lan-taldea, eta ekoizpenera bideratutako 3 tailer ditu. Orain dela gutxi Polariuma artisten eskura jartzen du. Diziplina guztietara bideratutako artisten proiektiorako gunea, hain zuzen ere.

Kooperazio sare hau elkarte eta artistez osatuta dago, eta euren ezaguera kontuan hartuta bakarkako nahiz taldeko laguntza eskaintzen du kultura arloko pertsona, artista, edota idazleari betiere lankidetzaren eta profesionaltasunean oinarrituta.